

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko urtarrilaren 3a. IX. urtea. 2.458. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Anduezak «herritarrekin eginiko lana» nabarmendu dute gertukoek

Joxelu Andueza Tolosako Udaleko EAJko zinegotzia abenduaren 31ean hil zen; jende asko elkartu da azken agurreko ekitaldian ◦5

### Poca Tripa txarangak inauterietan bizitako 50 urteak bildu ditu

Belaunaldi guztien historia jasoz 'La charanga Poca Tripa no tiene miedo' diskoa eta liburua egin dituzte ◦3



Liburuan ikusi daitekeen irudia. HITZA

### Maider Mendizabalek irabazi du Emakumea Pilotariko finala

Anoetarrak Eli Pagolarekin batera jokatu du maila nagusiko finala, Arozena eta Goikoetxearen aurka ◦6

### Gero eta jende gehiagok parte hartzen du San Silvestre probetan

Alegia, Alkiza, Berastegi, Ibarra, Lizartza, Tolosa eta Villabona-Zizurkilen izan dira lasterketak ◦7



HITZA

→ **Bespazioa inauguratu dute.** BOX.A elkarteak San Esteban auzoan duen tailerraren azpian egokitu du sormenerako gunea izango den B espazioa. Kulturaren eta artearen esparruko egitasmo nahiz lanak bertan gauzatzeko aukera izango da, eta edozein herritarrek bere proiektuak aurkezteko erabili ahal izango du gunea. ◦2

2013ko egutegia

Zatoz HITZAra, 2013ko mahai egutegiaren bila!

TOLOSALDEKO hitza  
ETA LEITZALDEKO



San Esteban auzoan BOX. Ak duen tailerraren azpian egokitu dute sormenari eskainitako gunea. HITZA

## B espazioa inauguratu du BOX. Ak, sormena landu eta plazaratzeko

Kulturaren eta artearen esparruko egitasmo nahiz lanak bertan gauzatzeko aukera izango du edozein herritarrek

San Esteban auzoan duten tailerraren azpian egokitu dute sormenerako gunea

### Itzea Urkizu

«Artea eta kultura transmititzeko zentroa» inauguratu berri du, BOX. A elkarteak, San Esteban auzoan: B espazioa.

Elkarteak euren lanak sortzeko erabiltzen duen tailerraren azpiko solairuan egokitu dute, kultura sortu nahiz plazaratzea helburu izango duen gunea: «2011ko maiatzean, gure tailerraren azpiko solairua eskatu genion, egitasmo hau aurrera eramateko, eta pabiloien zati hori ere probeste-ko», azaldu dute kideek.

Horrela beraz, Tolosako Udalak BOX. A ekartearen proposamena onartu, eta B espazioa sortu dute. «Goiko tailerra, BOX. Ako kideon lanetarako soilik erabiltzen dugu; behekoa, berriz, espazio berri bat denez, kaleko proiektuak hona ekarri eta ezagutarazteko erabiltzea da gure nahia», azpimarratu dute arduradunek.

Horrela, beraz, kultur transmisiorako zentro txiki bat martxan jarri dute San Esteban auzoko pabiloian, norberak bere egitasmoak erakusteko, eta baita harreman sareak sortzeko ere: «Elkar

ezagutzeko puntu bat izan daiteke B espazioa, eta norbera zertan ari den eta nora doan erakusteko gunea ere bai».

Artearen eta kulturaren sormenari plaza berri bat eskaintzeaz gain, ordea, BOX. A elkarteak bestelako jomugak ere izan ditu, espazio berri hau sortzerako garaian; Tolosako San Esteban auzo berrizteko bidean, beren alea jarri nahi dute. «Inguru hau aktibatzea onalitzatekeela uste dugu, Tolosako eremu hau berreskuratzea eta egokitzeko, eta baita bultzatzeko ere», diote BOX. Ako kideek. Honenbestez, San Esteban auzo «galduta edo ahaztuta ez gertatzea» nahi dute, horretarako mugimendu eta lanerako espazioaren eskaintza bat sortuz: «Hori herrira bideratu nahi dugu gero».

### Ideietatik plazara

B espazioaren inaugurazio ofiziala pasa den abenduaren 29an izan zen arren, jada hainbat jarduerak egin dituzte bertan, BOX. A elkarte kideek azaldu dutenez.

### ↓ Iragarki laburrak

#### GALDUTAKOAK

**Betaurrekoak.** Gertura ikusteko betaurrekoak galdu ditugu, Tolosako Guadalupeko zubitik ganadu hiltokira bitartean. Betaurrekoak aurkitu dituenak, dei dezala, mesedez, 943 65 36 86 telefono zenbakira.

tzen hastea» nahi dute. Horretarako irizpide nagusia, «sormena lantzen duten proiektuak B espazioa eramatearena da, betiere, hau arte eta kultur gunek bat dela gogoan izanda».

Beraz, literatura, antzerkia, pintura, argazkiak, ikus-entzuzko lanak, eta beste hainbat diziplina nabarmendu dituzten arren, «berez artearekin zerikusi handiegirik ez duten gaiak modu batera edo bestera bideratuz gero, egokiak izan daitezke B espazioan plazaratzeko», azaldu dute BOX. Ako kideek.

Honekin lotuta, gainera, espazioak berak dituen mugak ere azpimarratu dituzte elkarte arduradunek. Izan ere, aforo zehatza zein den ez dakiten arren,

### BOX. Aren B espazioa erabiltzeko eskaerak internet bidez egin daitezke

gehienez ere 100 lagun ingururen zoko tokia dago bertan, taberna eta sukaldea ere egokitu baitituzte: «Beraz, espazioak eskaintzen dituen aukeretara egokitu behar dute egitasmoek, mugak espazioak jartzen baititu hein handi batean».

Herritar ororen sormen lanak ezagutzera emateko espazio hau erabiltzeko, beraz, BOX. A elkarte kideek prestatutako eskaera orriak bete beharko dituzte interesa dutenek. Bertan, proiektuaren inguruko datuak zehaztu beharko ditu sortzaileak, eta BOX. Ak beren irizpideekin bat datorren egitasmoa dela erabakiz gero, B espazioan tartea egingo lioke proiektuari.

Eskaerak egiteko, [www.boxa-gara.com](http://www.boxa-gara.com) webgunea, [gu@boxa-gara.com](mailto:gu@boxa-gara.com) helbide elektronikoa eta [www.facebook.com/boxa.artelkarte](http://www.facebook.com/boxa.artelkarte) Facebookeko orria erabili daitezke.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



Azken asteotan hainbat jarduerak burutu dituzte jada. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



1963an sortu zen Tolosako Pocá Tripa txaranga, eta irudi zahar nahiz berriez hornitu dute, urteurrenaren harira argitaraturiko liburua. HITZA

Mende erdia beteko du Pocá Tripa txaranga, inauterietan. Belaunaldiz belaunaldi pasaturiko lekukoaren ibilbidea, disko eta liburu batean bildu dute kideek.

## 50 inauteriren historia

### Itzea Urkizu

**B**elaunaldiz belaunaldi eraberrituz joan da Pocá Tripa txaranga, azken mende erdian. 1963ko inauterietan, mahonezko galtzekin eta blusa batekin lehenengoz kalera irten zirenez geroztik, hamaika istorio bizi izandakoak dira musikariak, *La charanga Pocá Tripa no tiene miedo* liburu eta disko berriak ederki biltzen duen moduan. Aitzindariak ekindako bideari jarraitu diote ondorengoei ere.

Txaranga eta elkarte bakoitzak bere ereserkia du Tolosan, eta Pocá Tripa kideak ere beren doinu propioa izateko lanean hasi ziren hastapen haietan. Sormen prozesu hartako pasadizo batek eman dio izena, bada, Bonberenea Ekintzak zigilupean kaleratu duten argitalpenari: «Bertsolari bati deitu zioten kantuaren hitzak idazteko, baina bertsolaria ez omen zen ausartu bera bakarrik joaten, eta beste bi lagunekin azaldu omen zen afaltzera. Horrela, lehen afaria egin zuten, eta baita beste hainbat ere», azaldu du Javier Arrizibita txaranga kideak.

Letrarik osatzen ez zutela eta, beldurtzen hasi ziren, kideetako batek «nola-hala guk geuk bukatuko dugu», esan zuen arte. Abestiaren zati baten inguruan ari zirela, norbaitek «no tiene miedo, no tiene miedo, no tiene miedo, no tiene miedo» jarri zero, ondo ematen zuela proposatu zuen, eta



Astelenita egunez irten ohi dira kalera, txaranga ofizial gisa. HITZA



Piñata igandean lurreamendi egoitza bisitatzeko dute urtero. HITZA

horrela geratu zen Pocá Triparen abestia. Horrela beraz, Nestor Ardanaz maketatzailak titulu polita izan zitekeela iradoki zien txaranga kideei.

### Lekukoa hartuz eta emanez

Ospatzeko moduko urtemuga da aurtengoa, Pocá Tripa kideentzat. Horregatik, eta urte hauetan guztietan taldean jotzen aritu direnei «poz txiki bat eman nahian», liburu bat argitaratzeak merezi zuela erabaki zuten.

Finean, liburuak taldearen historia eta pasadizoak biltzen ditu, eta urtebete inguruko lana izan da eurentzat, argazki zaharrak biltzea: «Tolosako hainbat elkartetan aurkezpenak ere egin ditugu, argazkiak erakutsiz eta anekdotak kontatuz».

Bide horretan, urteen poderioz txaranga nola berritu eta moldatu den ikusi ahal izango du irakurleak, Javier Arrizibitak azaldu duenez: «Hasiara-hasieran, gazte batzuek sortu zuten txaranga, eta gerora, haien seme-alabak ere txaranga kide izatera pasa dira; baita hauetariko batzuen bilobak ere».

Historiaren bilakaeraz gain, ordea, tolosar guztiei ere eskaini nahi izan diete lan berria, diskoan bildutako 20 abestien bidez: «Diskoa grabatzea pentsatu genuen, txaranga kideez haratago, herrian ere produktua zabaltzeko, arrakasta pixka bat izan zezan».

Bide horretan, Bonbereneako estudioan grabatu zuten lana, azarora amaieran: «Oso ondo joan

zen grabaketa; hamaiketako eta bazkari legeak eginda, ondo zainduta ibili ginen, kide helduenen ohiturak mantenduz. Gainera, zaharrenak asko hunkitu ziren, ikusten baitute harrobirik badela txaranga, harrobi ikaragarria», nabarmendu du Arrizibitak.

Guztira, inauterietako 20 pieza grabatu dituzte, eta liburuarekin batera, Photokafen, Orbelan nahiz Zumbeltzen eskuragarri izango da, 20 euroren truke. Era berean, [info@bonberenea.com](mailto:info@bonberenea.com) helbide elektronikora idatziz gero ere, Pocá Triparen argitalpen berria eskuratu ahal izango da.

Inauteriei begira, berriz, Pocá Tripa ez du ezer berezirik prestatu: «Egia esan, jarduera bereziren bat egitearena izan genuen hizpide, baina helduenek zera esaten dute, inauterietan egiten duguna baina ezer hobeagorik ez dugula lortuko: zezenetara igoera, dantzaldia...». Piñata igandean, beraz, eta familia giroan, bazkari bereziarekin borobilduko dute urtemuga.

### Lagunartetik kalera

Inauterietan bere kabuz kalera jotzera ateratzen zen lagun taldea zen, berez, txaranga: «Astelenita egun librea izaten zen, eta nahi zuenak irten zezakeen jotzera. Horrela, egun batzuetan lau, besteetan bost eta beste egun batean hamar elkartzen ziren».

Astelenita hauetako batean, txaranga serio bat sortzearen ideia otu zitzaion haietako bati, eta lauzpabost lagunek guztia antolatu eta gero, 1963ko inauterietan ibili zen kalejiran, estraineko, Pocá Tripa txaranga; urtebete besterik ez zuten behar izan,

**‘La charanga Pocá Tripa no tiene miedo’ izenburua eman diote lan berriari**

**Inauterietako 20 abesti grabatu dituzte Bonberenean, argitalpena osatuz**

inauterietako txaranga ofiziale-tako bat izatera pasatzeko. «Urte hartan 35 pertsona inguru irten omen ziren, eta gaur egun, haietatik 15 inguruk jarraitzen dute oraindik ere», azaldu du Arrizibitak.

Horrela, eta aipaturiko lekuko horri eutsiz, 43 bazkide osatzen dute, egun, Pocá Tripa. Gainera, beste 16 musikari gazte ere aritzen dira: «Oraindik ez dira bazkideak, baina eurak dira gure esperantzak». Beste 50 urtean ere, Pocá Triparen abestia Tolosako inauterietako ezinbesteko doinueta bati izatea espero dute kideek: «Gure ondorengoei hau guztia ezagutzea espero dugu, eta ea eurrek ere, gutxienez, horrelako liburu bat osatzeko aukerarik duten».

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

# Sukaldaritza



## Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Jan edanak ugari diren garai honetan, txuleta eder batekin egin nuen topo nire plateran. Egin berria zegoen, zukua zerion eta azalean, erretako geruza beltza zeukan. Inongo angula kiloa baino nahiago dut txuleta hura! Angulak... jan ditzatela, kostaldeko dirudunek.

Inoiz pentsatu al duzue, zergatik haragia erretzen dugun? Gizakia da, janaria prestatzen denbora ugari eramaten duen animalia bakarra, nori otu ote zitzaion orein baten haragi zati bat hartu eta sutan erretzea?

Sukaldaritza orain milioi bat urte asmatu zela diote, baina ez zuen Homo sapiens-ak asmatu, gure ahaide urruna zen Homo erectus-ak baizik. Ez baduzue inoiz Homo erectus bat ikusi, pentsa gu bezalako gizaki bat, 1,70eko altuerarekin, ilez beteta eta tximino baten antzeko aurpegi batekin. Nahiz eta gure ahaide urrun honek, izaki nahiko tentel baten antza duen, gaur egun arratsaldeko telebistan agertzen diren zenbait memelo baino askoz ere adimentsuagoak ziren!

Sukaldatzeko beharrezkoena ez da, sukaldari beasaindar famatu batekin diogen bezala: tipula eta baratzeria. Sukaldatzeko, sua behar dugu eta sua maneiatzea ez pentsa erraza izango zela gure Homo erectus aiton-amonentzat.

Ziurrenik, bi Homo erectus gipuzkoar, aspaldiko Aralarko mendietan barrera paseatzen zebiltzala, zuhaitz bat ikusiko zuten sutan. Eta gipuzkoarren artean beti gertatzen den bezala, batek besteari zera esan zion: «etxeok potroik zuhaitz horren gañen zeoken animalia arraro hoi etxea emateko!».

Eta noski, animalia arraro hori etxera eraman zuten eta kontxo, animalia hark gauean beroa ematen zuten eta otso, hartza, lehoi eta bestelako animaliak urrun mantentzen zituen. Beraz, ez zen ez konpainia txarra!

Goiz batean, haragi puska odoltsu gordin bat jaten ari zen Homo erectus bati, haragi zatia sutara erori zitzaion eta hor sortuz haragi erre! Ongi etorriak lehen herri bazkarira.

Gure ahaide urrun haiek ez zekitena zen, beraientzat abantaila ederra izan zela haragia erretzea. Suak haragiari zuntzak apurtzen dizkio, liseritzen errazagoa eginenez, honela gorputzak energia gutxiago gastatzen du janaria prozesatzen eta energi soberakin hori

beste zerbaitetarako erabili ahal da, adibidez, sexu gehiago praktikatzeko eta gehiago ugaltzeko. Bestetik, jakin gure ahaide urrun haiek, ez zirela ziurrenik pelikuletako ehiztari perfektu eta lirirnak, seguru sarraskijaleak zirela. Hau da, gaurko bele eta saien antzera, harrapari batek utzitako haragi erdi usteldua edo gaixotasun batez hildako animalia haragia jaten zutela, hara gure jatorria! Umiltasunaren irakasle dira, gure ahaide urrunak.

Sua izanda, haragi erdi usteldu haiek izan zitzaizketen bakterioa eta ondoko arriskutsuak beroarekin guztiz desagertzen ziren, tripako infekzio gutxiago emanez eta bizitza osasuntsu eta ugalkorragoa eskainiz. Garai haietan tripako infekzio batek heriotza eragin zezakeen, beherako batek ur ugari galdu arazten zuen eta kobazulotik tripako minez irten ezin zuen Homo erectus-a, aste baten barruan gosez hil zitekeen.

Dudarik ez egin Homo erectus haiek, suari buruzko informazioa beste Homo erectus taldeei esango ziela eta aspaldiko internet bat bailitza, informazio hau zabalitzen joan zen, jende ugari zerebroak martxan ipiniz eta hone-la, baten batek, sua ezerezetik egiten ikasi zuen arte.

Zutabe xume honekin, sukaldaritza gure eboluzioan izan zuen garrantziaz ohartu bazarete, gustura geratuko naiz.

Beraz, kroketa, pate, urdaiazpikoa, arrain zopa, piper-bete (mmmm...) eta legatzaren osten, txuleta jatera zoaztenean... pentsatu minutu batez lehen Homo erectus sukaldari haietan. Txuleta kofradiako lehendakariak, behi txuleta gutxi eginda jan behar dela diogen arren... egin omenaldi xume bat Homo erectus haiei eta eduki txuleta minutu bat baino gehiagoz sutan... mezezi du eta!

Ikusten duzuenek, ez da munduaren amaiera iritsi, ardiak ez dira munduaren jabe egin eta zutabe xume honek zuen etxeetara iristen jarraituko du, Hitzaren bidez, *bioaniztasunetik.com*-en eta Facebook zein Twitter bidez.

Osasun eta jakintzaz betetako 2013 bat opa dizuet. Eta ohartu ez bazarete ere, 2013aren zenbakiak batzen badituzue, 6 zenbakia ateratzen da, insekten hanken kopurua juxtu! Insekten urtea. Ziur urte bikain bat izango dela! Urte berri on!



# Haurrek opor egunak pasatzeko hamaika aukera dituzte

Ettxeko txikienek jai egunak dituzte oraindik, baina ez dira aspertuko, ekitaldi ugari baitituzte aukeran

## Rebeka Calvo

Urtezahar eta Urteberri egunak ere pasa dira, eta geroz eta gutxiago geratzen da Eguberriak atzean uzteko, baina Errege Magoak iritsi bitarte, haur eta gaztetxoek opor egunak dituzte.

Herri askotan eurei zuzendutako ekitaldiak prestatu dituzte Gabonetako azken aste honetarako ere, eta ez dute aspertzeko betarik izango; irteerak, zinema, jolasak... dituzte aukeran.

Txotxongilo emanaldirik ere izango da, Topic zentroan *Elurrezko panpina* ikusi ahal izango baita gaur, 18:30ean.

Enkarni Genuak eta Manolo Gomezek sortutako Txotxongilo taldearen 40 urteurrena ospatzeko berreskuratutakoa lana da *Elurrezko panpina*, eta 1971ko otsailaren 3an Donostiako El Pu-

dri aretoan egin zuten lehen antzezpena.

## Helduentzako, musika

Helduek ere badute ekitaldiren bat edo beste aukeran, baina egitarauak, batez ere, etxeko txikienei begira egin dituzte.

Alegian, hala ere, Gaztetxearen 25. urteurrena ospatzen jarraitzen dute eta bihar play-back saioa egingo dute 22:00etatik aurrera. Anoetan, gaztetxearen baita, The Joseans eta Foxy Leiners taldeen kontzertuak entzun ahal izango dira, 23:00etan, bihar.



Txan magoak harri eta zur utzi zituen atzo haur nahiz helduak, Leidor aretoan. I.T.

## ↓ Gabonetako egitarauak

### ANOETA

■ **Gaur eta bihar.** 11:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 16:00etara xake partidak egingo dituzte Hozpel kaleko udal lokalean.

■ **Bihar.** Gaztetxearen Gabonetako egitarauaren barruan 23:00etan The Joseans eta Foxy Leiners taldeen kontzertuak.

■ **Bihar.** Txuri Urdinera irteera egingo dute aurretik izena eman dutenek. 10:30ean aterako dira farmazia ondoko geltokitik. Oinaren zenbakia 26tik aurrera dutenak ibili ahal izango dira patinetan. Aldatzeko arropa eta eskularruak eramateko eskatu dute.

■ **Urtarrilaren 6an.** 12:00etan Anoetako txistulari taldearen kalejira.

### ALEGIA

■ **Bihar.** Gaztetxearen 25. urteurrenaren dela eta, play-back saio egingo dute, 22:00etatik aurrera.

### IRURA

■ **Gaur.** 16:30etik 19:00etara 3

eta 8 urteko haurrentzako jolasak.


■ **Bihar.** 17:00etan Gaztelekuko kide berriei ongi etorria eta merienda, eta 17:30ean *11 kantatzeko* ikusentzunezkoa kulturunean.

■ **Etzi.** 17:00etan txokolate jatea.

■ **Gaureta bihar.** Ludoteka eta liburutegia zabalik egingo dira 11:00etatik 13:00etara.

### TOLOSA

■ **Gaur.** *Elurrezko panpina*, 18:30ean, Topic zentroan. Elkartzaren ekimena da, izan ere, sarrera diruz ordaintzeaz gain jaki desberdinekin ere ordaindu daiteke. Biltzen duten janari gutzitia Tolosako Caritasera eramango dute.



■ **Gaur eta bihar.** Kiliklon Txokoa Zerkausian. Gaur 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta bihar ordu bete gehiago, 21:00ak arte. 30 minutuko txartelak 2 euro balio du, ordu bete-koak 3 euro eta arratsalde oso-koak 4 euro. Begirale guztiak euskaldunak dira.

■ **Urtarrilaren 6an eta 7an.** *La parte de los ángeles* filma, Leidor aretoan; igandean 19:30ean eta 22:00etan, eta astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean.

### VILLABONA

■ **Bihar eta etzi.** 2 eta 9 urte-terko haurrentzat gabon parkea; bihar 16:30etik 19:30era egongo da zabalik Bearzana frontoian, eta etzi 10:00etatik 13:00etara, Malkar plazan edo frontoian, eguraldiaren arabera. Oria merkatari elkarteak antolatuko ekimena eta 2 euro balio du (familia ugaria direnek 1,40 euro ordaindu beharko dute).

■ **Etzi.** Herriko dendak irekita egingo dira 17:00etatik 20:00etara, Oria merkatari elkartearen ekimenez.

■ **Etzi.** 18:30etik aurrera pintxopotea egingo dute herrian, merkatariaren ekimenez.

# «Adostasunak lortzeko dohaina zuen»

Jendetza izan da Joxelu Andueza EAJko Tolosako Udaleko zinegotziaren azken agurreko ekitaldietan

## Iñigo Terradillos

Iragan abenduaren 31n hil zen Joxelu Andueza Tolosako Udaleko EAJko zinegotzia, 58 urte bete berrian, minbiziaren eraginez. Bai atzo goizean beilatokian egin zioten ekitaldian, bai eta arratsaldean Santa Maria parrokiaren izandako elizkizunean jendetza bildu zen azken agurra ematera.

Izan ere, oso ezaguna zen herriari gizarite, kultura nahiz gazteria arloan egindako lanarengatik. Egun zinegotzi zen oposizioan, baina, Jokin Bildarratz alkate izan zen legegintzaldietan, hau da, 2003-2007 eta 2007-2011 epeetan. Gazteria, Festak eta Ingurumen zinegotzia izan zen. San Bernardo Skaut taldeko kide izan zen bere sorreratik, Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakari izan zen, eta Kabi Alai elkarteko kide zen.

Bada, talde edo kargu batean zein bestean zuen parte hartzearengatik askotariko eragile, elkartean zein norbanakorekin elkarlanean egotea egokitu zitzaion. Eta, hain zuzen ere, Joxelu Anduezaren ezaugarri hori nabarmendu dute bere gertukoek: «Pentsakera, ideologia, alderdi edota adin desberdineko herritarrekin lan egin eta adostasunak lortzeko dohaina».

Nerea Letamendia EAJko zinegotziak «pertsonea ona» bezala definitzen du, «desberdinak batzen zituena». «Gazteen nahiz helduen alde, beti zegoen herriarengatik lan egiteko prest». Arlo desberdinetan egin du topo Letamendiak Anduezarekin, San Bernardo Skaut taldean lehenbizi, eta Tolosako Udalean ondoren. «Aisialdi taldean hezitu egin gintuen; berban pozik zegoen, gehien maite zituen ekimenak egiten: Inauteriak, mendiko irteerak, kanpalekuak...». Hain zuzen ere, San Bernardo Skaut taldearen eskutik 2007an jaso zuen omenaldia Anduezak. Taldeko kideek eskerriak eman zizkioten ekitaldi batean, «gozatu eta ikasitako guztia-



San Bernardo Skaut taldeko omenaldia egin zion Anduezari, 2007an. HITZA

gatik, izandako umorearengatik eta taldeari emandako guztiagatik».

Letamendiak gehitu duenez, «oso maitatua zen herrian».

«Abenduaren 19an izan zen bere urtebetetze eguna, eta egun horretarako familiak argazki album berezi bat egin nahi zion; bada, berarentzako zela jakitean jen-

dea segituan oso prest agertu zen albuma osatzen laguntzeko», azaldu du.

Jokin Azkue EAJko zinegotziak ere, Letamendiaren ildo beretik, «adostasunerako zuen jarraera» azpimarratu du. «Alderdi-kerietatik eta liskarretatik ihes egiten zuen, eta beti saiatzen zen adostasunerara heltzen». Horrez gain, herritarren iritzia «oso aintzab» izaten zituela ere nabarmendu du: «Proiektu berri bat aurrera eramaterakoan, herriaren pulstua edo herritarren iritzia berri izaten zuen, eta aproposa edo gustukoa izango zen ala ez jakiten zuen».

## Agur hunkigarria

Joxelu Anduezari azken agurra egiteko ekitaldi hunkigarria egin zioten atzo goizean beilatokian. Familiako kideak, nahiz lagunak, «jendetza» bildu zen bertan. Bere irudiek proiektio bat eman zuten, senitartekoek eta lagunek berari eskainitako hitzak izan zituen, eta Juanxo eta Miren Zeberioi musika jarri zuten. Arratsaldeko Santa Maria parrokiako elizkizunean ere jende uga-

## Jokin Bildarratz izango da EAJko senataria

EH Bilduko Iñaki Goioaga eta PSE-EEko Tontxu Rodrighez izango dira Legebiltzarreko beste bi ordezkariak

## I. Terradillos

Jokin Bildarratz Tolosako alkate ohia izango da Eusko Legebiltzarrean EAJko senataria. Berarekin batera, EH Bilduko Iñaki Goioaga abokatua eta PSE-EEko Tontxu Rodrighez, Barakaldoko alkatea, izango dira Eusko Legebiltzarrean hiru ordezkariak.

Alderdiek euren ordezkariak aukeratu dituzte bada. EAJ eta EH Bilduko hautagaiek beren alderdien botoekin nahikoa izango dute onartuak izateko; PSE-EEK, aldiz, beste alderdien botoak beharko ditu. EAJ eta EH Bilduren botoak jasoko dituzte sozialistek. PPK, aldiz, jakinarazi du ez duela aldeko botoa emango, EH Bilduri botoa eskatu diotelako. Urtarrilaren 24an egingo duten batzarrean egingo dira bozketak eta izendatuko dituzte senatari berriak.

Zinegotzi izan ostean, bi legegintzalditan (2003-2011) Tolosako alkate izan zen Jokin Bildarratz, eta baita Eudeleko lehendakari ere. Irakasle-ikasketetan Natur Zientzien esparruan diplomatua eta Zientzia Politiko eta Soziologian lizentziatua da. Irakasle bezala lan egin eta Anoetako ikastolako zuzendari izan ondoren, kazetari ibili zen Euskal Irrati Telebistan. EAJko Eusko Legebiltzarkide ere izan zen 2001eko irailaren 27tik urte bereko abenduaren 10era arte.

## Irudia



## URTEURRENA IXTEKO EMANALDIA

Tolosako Hodei Truk abesbatzaren 25. urteurrenko ospakizunak itxi zituzten iragan igandean, Topic zentroan eskaini zuten emanaldiarekin. Hodei Truk, Hodei eta Hodei Truk Hirukide abesbatzek, Hernaniko Musika eskolako eta Alegiako

Txintxarri txiki abesbatzen laguntza izan zuten, beste hainbat partaiderekin batera. Jende ugari izan zen David Azurza zuzendariak musikaturiko Joxe Mari Iturralderekin *Erlauntzaren sekretua* eta *Hurkua errementaria* ipulnekin gozatzen. HITZA

**Mauka** GALERKO ESKAINTZA

Lau lagunentzako asteburu-pasa Basaburuan

BAL KONPE NEKAZAL TURISMOA  
Paseo de Basaburu  
20482 11601 - NAFARRA  
Tel: 941.31.11.71 - 941.31.11.33  
941.31.25.08 - 941.31.11.11  
www.mauka.com

Prestion **225€**

**www.mauka.eu** **berria**

**WALNUT** Gipuzkoa Plaza, 1 Tolosa 20400 943 69 85 46

betardenda  
fitoterapia - alimentazio integratu

-Munduko esentzialak: Edward Bach, Korte, Fes, celidiv, ...  
-Kosmetika ekologikoa: Alkimia, Rosa Bulgaria  
-Kremak eta baseko gela  
-Aromaterapia  
-Chakra  
-Liburuak

# Maider Mendizabal anoetarrak urte zaharra txapela jantziz amaitu du

Iñaki Artola alegiarrak Zaldibarko lau t'erdiko txapelketaren finala irabazi du, Dorronsoro gaindituz

## Asier Imaz

Donostiako Atano III.a pilotalekuan emakumeen pilota jaialdi izugarria ospatu zen iragan larunbatean. Alde batetik, eskola arteko Eguberrietako Txapelketa Azkarreko finalak jokatu ziren benjamin, alebin, infantil eta kadete mailan. Bestetik, Ezker Hormako Emakumea Pilotari Txapelketako lehen mailako finala, eta elkarteen artekoa jokatu ziren. Giro oso polita egon zen frontoian, senitarteko eta ikusle ugari gerturatu zirelarik.

Maila nagusiko lehia erabakigarrian, eskualdeko bi pilotari aritu ziren nor baino nor. Maider Mendizabal anoetarrak Eli Pagolarekin jokatu zuen, eta Nagore Arozena lizartzarrek, Miren Goikoetxearekin. Lehen bikotea izan zen nagusi, 30-28ko emaitzarekin. Ordu eta erdiko norgehiagoka gogor eta lehiatua izan zen. Mendizabalek pilota gogor astindu zuen, eta Arozenak izugarriko lana egin zuen pilota guztiak frontisera itzuliz. Tanto luze eta borrokatu ugari izan ziren. Aurrelari gazteek ere oso maila polita erakutsi zuten, batez ere Miren Goikoetxeak. Eli Pagola berriz, Maider Mendizabalen bikotekidea, oso urduri egon zen ia partida osoan eta amaiera arte ezin

izan zituen bere gaitasunak erakutsi, tentsio handiko partida izan zelarik bi aurrelariarentzat. Mendizabalek bere maisutasuna erakutsi zuen beste behin ere eta ikusle kopuru handia gerturatu zen partida ikustera, Euskal selekzioaren futbol partida zela eta, Atanoko tabernara joan ziren guztiak sartu atera egin zuten frontoira zer ote zegoen ikusi asmoz, eta bat baino gehiagok lau pilotarien joko maila altua ikusirik partida guztia ikusi zuten eta emakume pilotarien berri izan zuten. 24. tantora arte atzetik joan ziren arren Pagola eta Mendizabal. Une horretan, ordea, aurrea hartzea lortu zuten, amaierako emaitza estura iritsi arte. Partida ikusgarria eta txapela, Anoetara.

Azkenik, jubenil mailako Elkarteen Arteko Gipuzkoako Txapelketako finala Alegiako Intxurre elkarteke Mari Murua eta Maialen Senperenak irabazi zuten, 30-27. Anoetako Su-Berri elkarteke Igone Gutierrez eta Ane Maizaren aurka. Akats ugari egin zituzten Intxurre zein Su-Berri elkarteke pilotariak urduritasuna medio, baina tartean tanto politak ere lortu zituzten batez ere bi atzeleriek txokoa mozketa zehatzen bitartez.

Jaialdiko antolatzaileek emakumezkoen pilota jaialdia oso ondo atera zela aipatu zuten, partida zirraragarri eta gogorrekin: «Berriz ere erakutsi dute emakumezko pilotariak joko maila polita dutela eta ikusteko moduko partidak jokatzeko gaitasuna dutela. Pixkana emakumeen pre-

sentzia handituz doa euskal pilotan, eta espero dugu aurrerantzean ere gisa honetako jaialdiak ikusleen interesekoak izatea».

## Gabonetako XI. Topaketak

Intxurre pilota eskolak, Alegia, Altzo, Ikaztegieta eta Amezketa guraso elkarten laguntzarekin, Gabonetako XI. Pilota Topaketak antolatu ditu. Finalak larunbatean jokatu ziren.

Aurre benjaminetan Beñat eta Eneko Gorostidi abaltzisketarrek irabazi zuten lehia, 12-10, Eñaut Otegi eta Mikel Iturriotz Alegiako bikotearen aurka. Benjaminetan, Unai Altuna alegiarrak eta Jokin Olano altzotarra nagusitu ziren, 12-8, Amets Uzkudun altzotarraren eta Janitz Fernandez amezketarraren aurka. Alebinetan, Xabat Artola (Altzo) eta Aitor Galarza (Amezketeta) izan ziren irabazleak, Iker Murua (Abaltzisketa) eta Iker Zubeldia (Altzo) gaindituz, 12-2ko emaitzarekin. Infantilen mailan, txapela Enaitz Aizpirtetek (Altzo) eta Kristian Morenok (Ikaztegieta) irabazi zuten, 12-7ko emaitzaz Ander Zubeldia (Altzo) eta Eñaut Zabala (Alegia) gaindituz. Azken finala kadekeen artekoa izan zen. Bertan, Aratz Irazustabarrena (Alegia) eta Xabier Luzuriaga (Ikaztegieta) nagusitu ziren, 12-3, Jon Luzuriaga (Ikaztegieta) eta Ander Garin (Alegia) aurka.

Bestalde, Intxurretik azaldu dutenez, urte zahar egunean Iñaki Artola alegiarrak Zaldibarko lau t'erdiko txapelketaren finala irabazi zuen, Dorronsoro arabarraren aurka, 22-15.



Ezker Hormako Emakumea Pilotari Txapelketako finalista. HITZA



Mari Murua eta Maialen Senperena Atano III.a pilotalekuan. HITZA



Gabonetako pilota topaketen finalista, Ikaztegieta. HITZA

## IKTko igerilariak bikain, Oiartzunen eta Hernanin

Tolosaldea Igeriketa Taldeko arduradunak gustura agertu dira euren igerilarien emaitza eta jarrerarekin

## Erredakzioa

Tolosaldea Igeriketa Taldea txapeladun gelditu da Oiartzunen ospatutako San Esteban Sarian. Txapelketa honetan 2004 eta 2003an jaiotako benjaminak; 2002 eta 2001ean jaiotako alebinek eta 2000ko mutilek hartu dute parte. Irakasleak pozik bueltatu dira ikusitakoarekin, alde batetik,

uretan erakutsitakoarekin eta bestetik, kanpoan izandako jarraira onarengatik: «Zorionak igerilari gaztetxo hauei, irakasleei eta ezinbesteko laguntza garrantzitsua ematen duten guraso guztiei».

Hernaniko Eguberri Sarian IKTko infantilen taldea izan zen. Denak beren denborak hobetzea lortu zuten eta sentazio onekin bueltatu ziren Tolosaldera. Gainera, bakarkako sei sari ere lortu zituzten igerilari gazte hauek. Infantilen taldea Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Espainiako gutxieneko denborak lortzeko lanean ari da jo eta su. Taldea, langilea eta gaitasun handikoa da eta

emaitza onak lortzeko aukera du, etorkizun handia dutela erakutsiz.

Euskal Herriko Kopari dago-kionez, abenduak 15 eta 16ean jokatu zen. Tolosaldea IKTko nesken eta mutilen taldeak Irunen aritu ziren lehian. Ilusioa, urduritasuna, historiarekiko ardura, hobetzeko gogo, lehiatzeko irrika... sentimendu asko eta igerilari trebe mordoa eraman zuen taldeak Bidasoa aldera. Mutilen kasuan, ametsa zen aurreko urteko hirugarren postua mantentzea, eta garestia izan bazen ere, jarraia bikaina erakutsi zuten eskualdeko igerilariak. Aipatzekoa da Ion Azpiazu, Pablo Uzkudun,

Eñaut Vazquez, Ekaitz Privado, Iosu Carrera, Iñaki Carrera, David Rodriguez eta Ivan Gabirondo absolutuen maila. Taldea, aldiz, ondorengo osatu zuten: Jon Ander Perez, Imanol Eceiza, Beñat Bidaola, Iñigo Alcorta, Julen Urretabizkaia, Xabi Beitia, Ander Arruabarrena eta Ekain Agotek. Guztira marka bikainak lortu zituzten asteburuan, eta bat aipatzekoan, Ander Arruabarrenarena nabarmendu behar da, 200 metroko bizkar frogan, 13 urtez azpiko Euskadiko errekorra hautsi baitzuen, 02:17:61eko denbora ikusgarriarekin.

Nesken helburua lehenengo mailan mantentzeko postua ber-

matzea zen, horretarako lehenengo sei taldeen artean sailkatu behar zelarik. Urte mordoa zera-man IKTk lehenengo mailan murgilduta. Azkenean gauzak ez ziren nahi bezain ondo atera, eta zortzigarren postua lortu zuten. Oraindik mantentzeko aukera badaukate eta denboraldian zehar esfortzu berezia eskatuko die lehenengo mailako txartela lortzeko helburuak. Igerilariak Marta Alonso, Zuriñe del Pozo, Idoia Alonso, Maite Barandiarain, Eleanor Cuadrado, Nerea Esandi, Ane Gonzalez, Maialen Mujika, Nerea Rodriguez, Uxue Zabala, Marina Etxarri, Olaia Cuadrado eta Irati Ibarbia izan ziren.

# 3.000 pertsona inguruk korrika amaitu dute urtea, San Silvestre lasterketetan

Alegia, Alkiza, Berastegi, Ibarra, Lizartza, Tolosa eta Villabona-Zizurkilena aritu dira korrika

## Asier Imaz

Abenduaren 31ko afariaren aurretik, korrika egitea ohitura bilakatzen ari da. Tolosaldeko zazpi herritan San Silvestre lasterketak antolatuta zituzten, eta guztira 3.000 lagun inguru aritu ziren korrika. Jendetsuena Tolosako Elkartasun Krosa izan zen. 651 heldu eta 650 haur atera ziren bertan. Giroa berotzeko asmoz, izan zen mozturoriturik atera zenik ere. Villabona eta Zizurkilena arteko urte zaharreko lasterketan 802 lagun atera ziren. Eneko Garin eta Aitziber Ibarbia izan ziren 6,5 kilometroko ibilbidea egiten azkarrenak.

Ibarran lehen aldiz antolatuta zuten San Silvestrea. 108 heldu eta 150 haur atera ziren plazatik korrika. Sendi Ekintza elkarteko antolatzaileak oso gustura zeuden emaitzarekin. Egun horretan lanean 30 lagun inguru aritu ziren, giro ederrean. Herriko komertzio eta tabernek ere euren ekarpena egin zuten, izan ere, hauek emandako 31 sari banatu zituzten lasterkarien artean. Guztientzat esker oneko hitzak izan dituzte Sendi Ekintza elkartetik. Lehen urteko arrakasta ikusirik, hurrengo urtean bigarren lasterketa antolatzeko gogotsu agertu dira elkarteko kideak.

Alegian, Alkizan, Lizartzan eta Berastegin ere haur, gaztetxo eta helduagoak korrika ikusteko aukera izan zen urteko azken egunean. Saillkapenak saillkapen, lehia-kortasuna baino parte hartzea azpimarratu dute antolatzaileek.

## ↓ Saillkapenak

### ALEGIA

#### Aurrebenjamin neskak

1. Lorea Balerdi

#### Aurrebenjamin mutilak

1. Joseba Rojas

#### Benjamin neskak

1. Uxue Balerdi

#### Benjamin mutilak

1. Oier Pagola

#### Alebin neskak

1. Larraitz Balerdi

#### Alebin mutilak

1. Ugaitz Mozo

#### Kadete-infantil neskak

1. Agurne Zubillaga

#### Kadete-infantil mutilak

1. Ander Garin

#### Helduak, neskak

1. Jaione Olano

#### Helduak, mutilak

1. Mikel Senperena

### TOLOSA

#### Benjamin neskak

1. Intza Adurriaga

2. Alaitz Rubiños

3. Ainhoa Murua

#### Benjamin mutilak

1. Alain Odriozola

2. Josu Tolosa

3. Asier Movellan

#### Alebin neskak

1. Maddi Santxex

2. Iratxe Martin

3. Maria Martija

4. Rakel Muñagorri

#### Alebin mutilak

1. Julen Zabala

2. Jon Lillo

3. Julen Irastorza

4. Xabier Alonso

#### Infantil neskak

1. Iزارo Perurena

2. Maria Lasa

3. Nadia Er Rays

4. Uxue Ezeiza

5. Eneida Saldias

#### Infantil mutilak

1. Unai Iribar

2. Ander Pagola

3. Iñaki Beitia

4. Ibai Salaberria

5. Ander Tolosa

#### Helduak neskak

1. Oihane Vazquez

2. Amaia Carretero

3. Pili Esnaola

4. Reiko Trees

5. Nerea Murua

#### Helduak mutilak

1. Unai Arroyo

2. Iker Manso

3. Mike Trees

4. Iker Pagola

5. Enrique Piedra

### VILLABONA-ZIZURKIL

#### Benjamin mutilak

1. Axel Arrikarte

#### Alebinak mutilak

1. Ander Usandizaga

#### Alebinak neskak

1. Irati Sarasola

#### Infantil mutilak

1. Yomanes Merino

#### Kadete mutilak

1. Aitor Irazu

#### Kadete neskak

1. Maialen Puyadena

#### Jubenil mutilak

1. Iker Beristain

#### Jubenil neskak

1. Ainhoa Errazkin

#### Beteranoak, gizonetakoak

1. Raul Gomez

#### Beteranoak, emakumezkoak

1. Lurdes Colombo

#### Absolutua, gizonetakoak

1. Eneko Garin

2. Raul Gomez

3. Unai Señoral

#### Absolutua, emakumezkoak

1. Aitziber Ibarbia

2. Lurdes Colombo

3. Eva Pelaez



Lizartzan haur eta helduak lasterka aritu ziren astelehenean. HITZA



Alegiako San Silvestre lasterketako podiuma. HITZA



Inauteriak aurreratu zituenik izan zen Tolosan. I.G.L.

## ◉ Hilberriak eta urteurrenak

# ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**JOXELU  
ANDUEZA  
OYARZABAL**



Mundiala izan zara

Kilometroak 98 eta 2013

Anoeta, Irura, Laskorain eta Uzturpe ikastolak

TOLOSA, 2013ko urtarrilaren 3a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Anoeta.** Gaur, 11:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 16:00etara xake partidak egingo dituzte Hozpel kaleko udal lokaletan.
- **Irura.** Gaur, ludoteka eta liburutegia zabalik egongo dira 11:00etatik 13:00etara, eta 16:30etik 19:00etara 3 eta 8 urteko haurrentzako jolasak izango dira.
- **Tolosa.** Gaur, *Elurrezko panpina* txotxongilo emanaldia, 18:30ean, Topic zentroan. Elkartasun ekimena da, izan ere, sarrera diruz ordaintzeaz gain jaki desberdinekin ere ordaindu daiteke. Biltzen duten janari guztia Tolosako Caritasera eramango dute.
- **Tolosa.** Kiliklon Txokoa izango da Zerkausian, gaur, 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. 30 minutuko txartelak 2 euro balio du, ordu betekoak 3 euro eta arratsalde osokoa 4 euro. Begirale guztiak euskaldunak dira.
- **Tolosa.** Gaur, 20:00etan, Johan Strauss Urte berriko kontzertua izango da, Leidor aretoan.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan etairitzien erantzukizunik.



Amasa-Villabanoko Aizkardi mendi taldeko kideak, urtero moduan, Loatzo mendira igo ziren. HITZA

# Urteari hasiera, mendira igoz

Jende askok urte berriari hasiera mendian eman dio; Loatzo edo Otsabio mendiak igo dituzte

**Eneritz Maiz**

Mendira joateko zaletasuna oso zabaldua dago euskaldunen artean, eta urteko lehen eguna ere, askok horretarako baliatzen dute. Tolosaldeko eta Leitzaaldeko mendietara jende ugari inguratu zen. Honela, Gabon egunetan egindako jan eta edanak kirolarekin tartekatzen dituzte. Txindoki, Hernio edota Uzturre mendiez gain, beste hainbat mendi kaskoetan elkartu ziren mendizaleak.

Horren adibide dira, Amasa-Villabanoko Aizkardi mendi elkar-

teko kideak. Urteroko ohiturari jarraituz, Loatzo mendira igo ziren. Hasiera batean, eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, urte-rik urtera pertsona gehiago animatzen ari direla azaldu dute antolatzaileek.

Lizartzako herritar talde batek, berriz, 2013ko lehen egunean, Otsabio mendirako bidea hartu zuen.

Urteari amaiera edota hasiera emateko, mendira salda edota txanpaina hartuta igotzen denik izaten da. Hamaiketako ederra egin, eta urteari hasiera bikaina eman izan ohi diote. Beste zenbait, ordea, gauez ibili ohi da parrandan, eta urteko lehen egunak argitu ostean egiten dute etxerako bidea. Ohiturak ohitura, urteari hasiera emateko hainbat modu daude.

● tolosaldean@hitza.info



Lizartzarrek Otsabioko tontorra zapaldu zuten. HITZA

**Agurrak**

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**AGURRAK**  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

**agurrak**